

HEZKUNTZA ETA KIROL FAKULTATEA

Jarduera Fisikoa eta Kirol Zientzien Gradua

Kurso-akademikoa: 2021-2022

**BULARREKO MINBIZI METASTASIKOA EMAKUEMEETAN: JARDUERA FISIKOAREN ERAGINA ETA
HOBEKUNTZA PROPOSAMEN PRAKTIKOA DONOSTIA ONKOLOGIKOKO PROIEKTUARI**



Egilea:

Caballero Hernández, Andrea

Zuzendaria:

Iturriaga Madariaga, Gorka

Data, 2022ko Maiatzaren 19a

AURKIBIDEA

1-SARRERA	4
2-MARKO TEORIKOA	5
2.1-MINBIZIAREN ORKORTASUNAK.....	5
2.1.1-Datu estatistikoak	5
2.1.2-Minbiziaren definizioa eta orokortasunak.....	6
2.1.3-Minbiziaren faseak eta etapak	7
2.1.4-Arrisku faktoreak.....	8
2.2-BULARREKO MINBIZI (METASTASIKOAREN) ORKORTASUNAK	9
2.2.1-Datu estatistikoak	9
2.2.2-Bularraren anatomia	10
2.2.3-“Ur-jauzi” metastasikoa	11
2.2.4-Arrisku faktoreak.....	13
2.2.5-Tratamendua (IV metastasikoa):.....	16
2.3-JARDUERA FISIKOA ETA MINBIZIA.....	17
2.4-JARDUERA FISIKOA ETA BULARREKO MINBIZI (METASTASIKOA)	23
3-DONOSTIA ONKOLOGIKOA.....	26
3.1-Donostia Onkologikoa parte hartzen ari den proiektuak zertan datzan:.....	26
4-PROPOSAMENA	30
5-LABURPEN TAULA	52
6-ONDORIOAK.....	53
7-ERANSKINAK	54
8-ERREFERENTZIAK.....	59

IRUDIEN AURKIBIDEA

Irudia 1	5
Irudia 2	5
Irudia 3	6
Irudia 4	6
Irudia 5	9
Irudia 6	10
Irudia 7	10
Irudia 8	11
Irudia 9	12
Irudia 10	13
Irudia 11	50

TAULEN AURKIBIDEA

Taula 1	17
Taula 2	27
Taula 3	29
Taula 4	29
Taula 5	30
Taula 6	33
Taula 7	41
Taula 8	45
Taula 9	50

GRAFIKEN AURKIBIDEA

Grafika 1	18
Grafika 2	22
Grafika 3	22

BULARREKO MINBIZI METASTASIKOA EMAKUMEETAN: JARDUERA FISIKOAREN ERAGINA ETA HOBEKUNTZA PROPOSAMENA

1-SARRERA

Minbizia, kontrolik gabeko hazkundera ezaugarri duten 100 gaixotasun mota baino gehiagoko taldea da, era berean, eragin handiko eritasuna da. Izan ere, munduko heriotza eragile nagusietako bat bihurtu da, hala, bigarren kausa nagusia dela urtean milaka kasu berri diagnostikatuz. Ildo horri helduz, mundu mailako zenbatespenek 2040ean kasu berrien kopurua 30,2 milioikoa izango dela adierazten dute.

2021ean Espainian gehien diagnostikatutako minbizi kasuak hauek izan dira: kolonekoak eta ondestekoak (43.581), prostatakoak (35.764), bularrekoak (33.375), birikakoak (29.549) eta gernu-maskurikoak (20.613).

Bularreko minbizia emakumeen artean intzidentzia eta hilkortasun tasa handiena duen minbizia da.

Ondorioz, behar-beharrezkoa da gaixotasun honi aurre egiten laguntzen duten ibilbideak topatzea. Oraindik ere, asko geratzen da ikertzeko patologia honen inguruan, hau da, erronka handia dago aurretik, baina hala eta guztiz ere, ebidentziak jarduera fisikoak duen eraginkortasuna argi uzten du minbiziaren arriskuaren murriztapenean; eta honakoa pairatzen duten gaixoen sententzioen hobekuntzan.

Jarduera Fisikoa (hemendik aurrera JF) tratamendu farmakologikoaren aldean, edozein pertsonaren organismoan polipidora bat bezala jarduten du, hots; organo guztiei eragiten die modu positiboan efektua txikia bada ere, eta ez du inongo alboko ondorio kaltegarriak sortzen (bigarren mailako efektuak) modu egokian egiten bada, are gehiago, onura askoren agerpena bermatzen du. Hori dela eta, tresna eraginkorra eta erabilgarria da bularreko minbizi metastasikoa duten emakumeen bidari aurre egiten laguntzeko, zeina tratamenduak bizi kalitatea eragozten dien.

Aurreko guztia esanda, Donostiako Onkologikoan gauzatutako praktikei esker, gizartean berebiziko inpaktua duen minbizia bezalako gaixotasuna gertutik bizitzeko aukera izan dut, hain zuzen ere, bularreko minbizi metastasikoa duten emakumeen errealitatea. JFari begira, proiektuaren gaineko hobekuntza proposamena egitea da nire helburua.

BULARREKO MINBIZI METASTASIKOA EMAKUMEETAN: JARDUERA FISIKOAREN ERAGINA ETA HOBEEKUNTZA PROPOSAMENA

2-MARKO TEORIKOA

2.1-MINBIZIAREN ORKORTASUNAK

2.1.1-Datu estatistikoak


1971n, Richard Nixon AEBetako presidentek "minbiziaren kontrako gatazka" aitortu zuen, eta momentu horretan ere, 5 urte igaro ostean irabazteko asmoa agertu zuen. 40 urte pasa eta gero, minbiziak ekonomikoki garatutako herrialdeetan hiltzen jarraitzen du (Kaiser, 2021) osasun publikoko arazo garrantzitsua izanik mundu osoan zehar, eta era berean, bigarren heriotza-arrazaia da (Siegel et al., 2021).

Espanian 2021ean gizonen artean gehien zabaltzen diren minbizi kasuei dagokienez, hauek dira: prostata, kolona eta ondestea, birika eta gernu-maskuria. Emakumeetan, berriz, bularrekoak, kolon eta ondestekoak dira (Sociedad Española de Oncología Médica, 2020).

Hilkortasun tasaz hitz egitean, munduan eta Espainian zenbatetsitako hilkortasuna alderatuz gero, Espainian proportzioa handiagoa da: biriketako minbizian (%22,930, %20,3), koloneko eta ondestekoan (%16,470, %14,6) eta pankreakoan (%6,7) eta aitzitik, hilkortasun proportzio hori txikiagoa da gibelesko (%4,9) eta urdaileko minbizietan (%4,7) (SEOM, 2020). Ikusi 1 eta 2 irudiak.


Irudia 1

Mundu mailan hilkortasuna handiena duten minbiziak islatzen dira (SEOM, 2020).



Irudia 2

Espainia mailan hilkortasun handiena duten minbiziak islatzen dira (SEOM, 2020).



BULARREKO MINBIZI METASTASIKOA EMAKUMEETAN: JARDUERA FISIKOAREN ERAGINA ETA HOBEKUNTZA PROPOSAMENA

Euskal Herrian, 2020. urtean, minbiziagatiko heriotzen kopurua 6.304 izan zen, eta hilkortasun tasa gordina 284 heriotza 100.000 biztanleko. Eragindako heriotzak batez ere adineko helduei eragiten die. Heriotza guztietatik, %76,88 65 urte edo gehiagoko pertsonetan azaltzen da (Asociación Española contra el Cáncer, 2020).

REDECAN (Red Española de Registros de Cáncer) minbiziaren inguruko biziraupeneko informazioa eskaintzen du 13 herrialdetan (Asturias, Castelló, Ciudad Real, Cuenca, Euskal Herria, Girona, Kanariak, Granada, Errioxa, Mallorca, Murtzia, Nafarroa, Tarragona eta Tenerife)2013-2016ko epean. Hala, gizonen kasuan, %90ekoa da biziraupena prostata eta arrautza minbizietan, %86koa tiroideetan; %7koa pankreakoan, %12koa birrikakoan eta %18koa esofagoan eta gibelean. Emakumeen artean aldiz, %93ko biziraupena tiroideko minbizian, %89koa larruzaleko melanoman, %86koa bularreko minbizian, etab. (SEOM, 2020).

2.1.2-Minbiziaren definizioa eta orokortasunak

Minbizia, kontrolik gabe ugartzen diren zelulak gorputzeko edozein ataletara zabaltzen direnean sortzen den gaixotasuna da (Instituto Nacional del Cáncer, 2021.)


AECC-k (2021) azaltzen du gizakion organismoa zelula multzo batek osatzen duela. Horiek aldizka eta erregularki banatzen dira zaharturik edo hilik daudenak ordezkatzeko, eta modu horretan, organoen osotasuna eta funtzionamendu egokia bermatzen laguntzen dute:

- A) Zelulak banatzeko prozesua kontrol mekanismo batzuek arautzen dute.

Mekanismo horiek zelulari noiz hasi zatitzen eta modu berean, noiz geldirik egon adierazten diote. Konpondu ezin daitekeen kalte zelularra gertatzen denean, autosuntsiketa zelularra pasatzen da, eta horrek eragotzi egiten du ondorengo zeluletan kaltearen agerpena. Ikus irudia 3.

Irudia 3


Zelula zatiketa normala (AECC, 2021).



- B) Aldez aurretik aipatutako kontrol mekanismoak zelula batean aldatzen direnean, zelula horrek eta haren hurrengoek kontrolik gabeko zatiketa bat jasaten dute, eta denborarekin, tumore bat sortzen da. Ikus irudia 4.

Irudia 4

Zelulen kontrolik gabeko zatiketa (AECC, 2021).



BULARREKO MINBIZI METASTASIKOA EMAKUMEETAN: JARDUERA FISIKOAREN ERAGINA ETA HOBEKUNTZA PROPOSAMENA

Tumoreak organoak inbaditu eta suntsitzeko gaitasunik ez duenean, tumore onberaz hitz egiten da. Aldiz, zelulak kontrolik gabe hazteaz gain beste asaldura batzuk izaten badituzte, eta inguruko ehunak eta organoak (infiltrazioa) inbaditzeko eta organismoaren beste leku batzuetara lekualdatzeko (metastasia) eta ugaritzeko ahalmena hartzen dutenean, tumore gaiztoaz hitz egiten da, eta honi minbizia deritzo (AECC, 2021).

2.1.3-Minbiziaren faseak eta etapak

Faseak AECC-ren (2021) arabera:

1. IN SITU: lehenik eta behin, zelula aldaketak gertatzen dira. Aldaketak zelulei ezaugarri kaltegarriak gainjartzen dizkiete, hau da, kontrolik gabeko ugalketa eta inbasio ahalmena. Gaixotasunaren etaparik luzeena da.
2. INDUKZIOA: bigarren etapa hau ezaugarritzen da minbizi-lesio mikroskopikoa sortu den ehunean bertan lokalizatzen denean.
3. TOKIKO INBASIOA: indukzioa ondoren, lesioa bere jatorrizko kokalekutik kanpo zabaltzen hasten da eta inguruko ehun edo organoak hartzen ditu.
4. METASTASIKOA: azkenik, gaixotasuna bere jatorritik kanpo hedatzen da, eta urrutiko tumore-lesioak agertzen dira, metastasi deritzenak. Urrutiko inbasioaren etapa da. Pazienteak duen sintomatologia konplexua izaten da.

Minbiziaren faseak aipatzea esanguratsu ikusi dut, gradu amaierako lan honetan azalduko den profila bularreko minbizi metastasikoa pairatzen duten emakumeak baitira.

Esan daiteke faseak etapei atxikita daudela, izan ere, etapako sailkapen apalenek (1 edo 2), minbizia ez dela hainbeste zabaldu esan nahi dute. Kopuru handiago (3 edo 4) batek berriz, minbiziaren hedapen handiago bat adierazten du. 4. etapa handiena da. Gainera, minbiziaren etapa oso garrantzitsua da pertsona batentzat tratamendu planik onena zein izango litzatekeen zehazteko. Hori dela eta, American Joint Committee on Cancer (AJCC) eta International Union for Cancer Control (UICC) erakundeek TNM estadifikazio-sistema erabiltzen dute, horrela, medikuei lagungarri egiten diete zenbait minbizi moten etapa arau batzuen arabera zehaztea, eta arestian aipatu bezala, tratamendu egokiena espezifikatzea (American Cancer Society, 2020).

- T jatorrizko tumoreari dagokio (primarioa)
- N linfa-gongoilei dagokie (noduluak). Minbizia inguruko gongoil linfatikoetara hedatu den adierazten du.
- M metastasiari dagokio. Minbizia gorputzaren urruneko ataletara zabaldu den adierazten du.

BULARREKO MINBIZI METASTASIKOA EMAKUMEETAN: JARDUERA FISIKOAREN ERAGINA ETA HOBEEKUNTZA PROPOSAMENA

2.1.4-Arrisku faktoreak

Minbiziaren kausa eta faktoreak asko dira. Hauetatik gehiengoa bizi estilo osasuntsu batekin erlazionatzen dira eta berebiziko garrantzia dute: JF eza, dieta desegokia eta tabakismoa. Minbizien %75-80-a kanpo eragileei dagokie. “Kanpo” eragile esan nahi du, bereizgarriak moldagarriak direla (Herrero eta Pérez-Ruiz, 2011). Izan ere, JF eza hiltzeko arrisku handieneko arrazoi nagusia da, (Lee eta Skerrett, 2001) eta gaixotasun kroniko askorekin lotzen da, hala nola, kardiopatia iskemikoarekin (Kohl, 2001), diabetesarekin (Lynch et al., 1996) eta zenbait minbizi motekin (Thune eta Furberg, 2001).

Arestian aipatu bezala, tabakismoa eta dieta heriotzen kausa nagusia dira, egiatan, ia bi heren izanik. Estatu Batuetan minbiziak eragindako heriotzen erdia baino gehiago, %60 hain zuzen ere, tabakoaren keari eta dietari egotz dakizkieke. Tabakismoak minbiziak eragindako heriotzen %30 eragiten du, eta tabakoaren kea da Estatu Batuetako kartzinogenorik hilgarriena (Trichopoulos, 1978).

Elikagai gehigarri ez-elikagarrien artean ordea, gatzak baino ez dirudi minbiziaren eragile nabarmena. AEBtik kanpoko herrietan egindako azterlanak, kontsumo handiak urdaileko minbizia eragin dezakeela iradokitzen dute. Gainera, Asiako hego-ekialdean, arrain gazi asko jaten duten haur oso txikiek nasofaringeko (faringearen goiko aldea, sudur-hobietara iristen dena) minbiziaren gehiegizko tasak izateko joera dute (Trichopoulos, 1978).

Halaber, kakexia (sindrome konplexu bat da, pisu galera, lipolisia, muskulu eta errai proteinen galera, anorexia, goragale kronikoak eta ahultasuna konbinatzen dituena) (Bruera, 1997) eta muskulu higadura faktore garrantzitsua da, endekapen funtzional progresibo independentea sorrarazten baitu. Era berean, bizi kalitatea murriztu eta heriotza tasa handitu egiten du (Crawford et al., 2016) minbizia duten gaixoen %40an eta tumore gaiztoak dituzten ospitalizatuen %80an egiaztatuz. Sindromeak tratamendua zailtzen du eta heriotzen %20 eragiten du (Fioravanti, 2018). Gainera, gaixotasunaren uneren batean muskulu masa galeraren proportzioa galtzen duten pazienteek %80tik gora handitu egiten da (Bruera, 1997).

Bizi estiloarekin erlazionatutakoez gain, beste kanpo agente batzuk daude, kartzinogeno fisikoak, hala nola, erradiazio ultramoreak eta ionizatzaileak; kartzinogeno kimikoak, esaterako amiantoa, aflatoxinak (elikagaien kutsatzaileak) eta artsenikoa (edateko uraren kutsatzailea), eta kartzinogeno biologikoak, adibidez birus, bakterio eta parasito jakin batzuk (Osasun Mundu Erakundea, 2021).

BULARREKO MINBIZI METASTASIKOA EMAKUMEETAN: JARDUERA FISIKOAREN ERAGINA ETA HOBEKUNTZA PROPOSAMENA

Esandako guztia esanda, minbizia ekidin daitekeen gaixotasuna da, bizi estilora atxikitzen diren faktoreak eraldatuz, non jarduera fisikoa gero eta paper garrantzitsuagoa hartzen ari den (Herrero eta Pérez-Ruiz, 2011).


2.2-BULARREKO MINBIZI (METASTASIKOAREN) ORKORTASUNAK

2.2.1-Datu estatistikoak

Bularreko minbizi metastasikoa bularreko minbiziak eragindako heriotzen gehiengoa adierazten du (Scully eta Boon-Huat Bay, 2021); izan ere, mota arruntena da, eta minbiziagatiko heriotza eragile nagusia emakumeengan (Jemal et al., 1999). OMEak 2012ko txostenaren arabera, heriotza guztien %23a osatzen duela baieztatzen du. 2018an, munduan, 2.1 milioi bularreko minbizi kasu berri diagnostikatu ziren (Bray et al., 2018). Intzidentzia eta hilkortasuna handitu egin da azken 50 urteetan (Donepudi et al., 2014); 2008an bularrekoak eragindako kasu berriak %23 izan ziren (1,38 milioi) eta heriotzak %14 (458.400). Bularreko minbizien erdiak eta heriotzen %60 ekonomikoki herrialde garatuetan gertatzen direla hauteman da (Jemal et al., 1999).

Irudia 5

Mundu mailan emakumezkoetan minbizi kasu berriak eta heriotzak minbiziaren kokapenaren arabera (Jemal et al., 1999).




Espanian, 2021an, emakumeengan maiztasun handienarekin diagnostikatutako minbiziak bularrekoak eta kolon eta ondestekoak izan dira. Hortaz, kolorrektalarekin batera, bularrekoak hilkortasun tasa handienetako erantzukizuna du (6.606;% 14,6) (SEOM, 2020). Ikus irudia 6.

BULARREKO MINBIZI METASTASIKOA EMAKUMEETAN: JARDUERA FISIKOAREN ERAGINA ETA HOBEEKUNTZA PROPOSAMENA

Irudia 6


Espainia mailan emakumezkoetan gehien diagnostikatutako minbiziak (SEOM, 2020).



Euskal Autonomia Erkidegoan 2011-2015 bosturtekoan intzidentzia kontuan hartuta, emakumeen minbizi kokapen ohikoena bularrekoa da, intzidentzia-tasa gordina 7.669/100.000 biztanleko izanik (Lopez de Munain eta Audicana, 2019). 2000-2013 aldian, emakumeen artean maiztasun handi batekin eman zen minbizi inbaditzailea da; urtean % 1,5eko goranzko joera izan zuen, eta emakumeen artean heriotza gehien eragin zuen tumorea izan zen 2011-2015 artean, urtean 342 heriotza, batez beste alegia (Agirre eta Sainz, 2018).

Irudia 7

Euskal Autonomia Erkidegoan minbiziaren kokapen ohikoenak emakumezkoetan (Lopez de Munain eta Audicana, 2019).



2.2.2-Bularraren anatomia

Bularra goiko saihetsetan eta bularreko muskuluetan oinarritzen den organoa da. Bi titi daude, eskuinaldekoa eta ezkerraldekoa. Nagusiki, guruinak, hodiak eta gantz-ehunak dituzte. Jaioberriak elikatzeke esnea ekoiztu eta ematen dute (ACS, 2021).


BULARREKO MINBIZI METASTASIKOA EMAKUMEETAN: JARDUERA FISIKOAREN ERAGINA ETA HOBEKUNTZA PROPOSAMENA

Bularrak hainbat atal desberdin ditu (ACS, 2021) :

- **Lobulutxoak** amaren esnea sortzen duten guruinak dira. Hemen hasten diren minbiziei lozorroko minbizi deritze.
- **Hodiak** lobuluetatik atera eta esnea titiburura eramaten duten kanal txikiak dira. Hau da bularreko minbizia hasteko lekurik ohikoena. Hemen hasten diren minbiziei, minbizi duktalak deritze.
- **Titiburua** titiaren azaleko irekidura da, non hodiak elkartzen diren eta hodi handiagoak bihurtzen dira esnea titik atera ahal izateko. Titiburua areola izeneko azal lodi ilunago batez inguratuta dago. Titiaren Paget gaixotasuna (garatzen den minbizia titiburuan).
- **Koipeak eta ehun konjuntiboak (estromak)** hodiak eta lobuluak inguratzen dituzte eta beren lekuan mantentzen laguntzen dute. Hemen gertatzen den minbizia, filodes da.
- **Odol hodiak eta hodi linfatikoak** titiaren barruan aurkitzen dira. Angiosarkoma minbizia garatzen da hodi hauetan.

Irudia 8

Bularreko anatomia normala eta bularreko anatomia minbiziaren garapenarekin (ACS, 2021).



2.2.3-“Ur-jauzi” metastasikoa

Bularreko minbizia duten gaixoen %10-15ek, gutxi gorabehera, gaixotasun erasokorra dute, eta urrutiko metastasia garatzen dute tumore primarioaren hasierako detekzioaren ondorengo 3 urteetan. Gainera, metastasiaren izaera heterogeneoak, gaixotasun horren sendabideak preskribatzeko erraztasunak ez edukitzeaz gain, metastasiaren arrisku-faktoreen ebaluazioa ere zailtzen du (Weigelt et al., 2005).


BULARREKO MINBIZI METASTASIKOA EMAKUMEETAN: JARDUERA FISIKOAREN ERAGINA ETA HOBEEKUNTZA PROPOSAMENA

Jakina da metastasiak hainbat urrats jarraitzen dituela: tumore-zelulak, (i) askatu eta tumore primarioaren gunetik kanpora migratzen dute, (ii) alboko ehuna inbaditu eta mintz basaletik sartzen dira, (iii) era berean, odol edo linfa-hodietan sartzen dira, (iv) anoiki (zelularen eta matrizearen zelulaz kanpoko elementuen arteko kontaktu desegokiagatik edota kontaktu ezagatik gertatzen den heriotza zelular programatua da) (Becerra eta Pimienta, 2009) egoerari irauten diote tumore masatik askatzen diren bitartean eta zirkulazioan dauden bitartean, (v) urruneko organo batean odol hodietatik edo hodi linfatikoetatik ateratzen dira, (vi) nodulu mikro metastasikoak eratzen dituzte, (vii) egokitu eta berriz ere programatu egiten dira inguruko estroma eta makro metastasia sortuz (Steege, 2006).

Laburbilduz, zelula metastasikoen migrazioan sartzen dira: 1. tokiko inbasioa, 2. intrabasazioa, 3. barreiadura eta 4. estrabasazioa, non urruneko ehunetan infiltrazioa, defentsa immunitarioen ihesa, hobietara laguntza egokitzeko, bizirik irautea tumoreak, eta azkenik, ostalariaren ehuna ordeztuko haustura funtsezko urratsak dira 5. kolonizazio metastasikoa emateko (Massagué eta Obenauf, 2016).

Irudia 9

“Ur-jauzi” metastasikoaren eskema (Roberts, et al., 2019).




BULARREKO MINBIZI METASTASIKOA EMAKUMEETAN: JARDUERA FISIKOAREN ERAGINA ETA HOBEKUNTZA PROPOSAMENA

Bularreko minbizi primarioko zelulek hainbat organotara egiten dituzte metastasiak odol-hodien bidez, batez ere biriketara, gibelera eta hezurretara. Gaixoek metastasia garatzen dute leku askotan(Weigelt et al., 2005) .

Irudia 10

Minbizi metastasikoaren kokapen komunenak (Weigelt et al., 2005).



2.2.4-Arrisku faktoreak

Orain arte egindako azterketa epidemiologikoen bularreko minbizirako hainbat arrisku-faktore ezarri dituzte emakumeen adina eta sexuaz gain. Arrisku-faktore horietan aldaezinak daudenak aurkitzen dira, hala nola, arraza, etnia eta genetika, baina baita ere moldagarriak direnak, esaterako, dieta, jarduera fisiko eza, hormona exogenoekin eta emakumeen ugaltze faktore batzuekin lotutako esposizio aldagarriak (Roberts et al., 2019).

Faktore aldaezinak:

Adina

Sexuaz gain, zahartzea bularreko minbiziaren arrisku-faktore garrantzitsuenetariko bat da, izan ere, bularreko minbiziak lotura estua du adinaren igoerarekin. 2016. urtean, heriotza guztien %99,3 eta %71,2 inguru bularreko minbiziari lotutako heriotzak Amerikan 40 eta 60 urte bitarteko emakumeen artean eman ziren, hurrenez hurren (Siegel et al., 2017).

Aurrekari familiarra/Genetika

Familian bularreko minbiziaren aurrekari positiboak izatea gaixotasunerako ezarritako arrisku-faktorea da. Bularreko minbizi duen lehen mailako senidea duten emakumeek bularreko minbizi garatzeko arrisku bikoitza dute (Steven et al., 1992)(Newman et al., 1997). Zenbat eta gazteagoa izan familian eritasuna pairatu duen senidea, orduan eta handiagoa da arriskua, eta handitu egiten da bularreko minbizi duen lehen graduko ahaideen kopurua

BULARREKO MINBIZI METASTASIKOA EMAKUMEETAN: JARDUERA FISIKOAREN ERAGINA ETA HOBEKUNTZA PROPOSAMENA

(Siegel et al., 2017). Bularreko minbizia duten pazienteen %20 inguru lehen graduko ahaide baten gaixotasunaren aurrekari familiarak dituzte. (Roberts et al., 2019).

Arraza

Bularreko minbiziagatiko hilkortasunean, hainbat faktorek azal ditzakete arraza desberdintasunak, adibidez: faktore sozioekonomikoak, baheketa mamografiarako eta tratamendu egokirako sarbidea eta faktore biologikoak. Estatu Batuetan, etnia hispaniarra eta arraza beltza bularreko minbiziaren diagnostikoan aurreratuago dagoen estadio batekin lotu da (Yedjou et al., 2017)(Coughlin et al., 2015).

Ugaltze-sistema/Erreproduzio prozesua

Ugalketa-faktoreak, hala nola, hileroko goiztiarra, menopausia berantiarra, lehen haurdunaldiko adin berantiarra eritasuna areagotzen dute. Egin-eginean ere, menopausian urtebeteko atzerapenak arriskua % 3 handitzen du (Sun et al., 2017). Ugaltze hormonek esan bezala, arriskua bultzatzen dute zelulen ugaltzea handitzean eta ADN-a kaltetzeko edo minbiziaren hazkuntza sustatzean(ACS, 2012). Menopausia ondorengo emakumeen 13 azterlanen kontrol taldearen datuen azterketa bateratuan, estradiola zirkulatzen zuten mailak %6 txikiagoak ziren 14 urte goratik hilerokoa zuten emakumeetan 12 urte zituztenetan baino (Key et al., 2011).

Faktore aldakorrak:

Faktore antropometrikoak

Faktore antropometrikoak, hala nola, garaiera, pisua eta adipositatea, sakon aztertu dira bularreko minbiziaren azterketa epidemiologikoetan, gorputz-masaren indizearen balio altuagoak zituzten emakumeek bularreko minbiziaz eta beste hainbat minbizi mota ezberdinez hiltzeko arrisku handiagoa zutela aurkitu zuten (Roberts et al., 2019).

Dieta

Kontuan hartu beharreko elikagaiak eta bularreko minbizia izateko arriskua areagotzen dutenak: alkohola (Chen et al., 2012)(Tjønneland et al., 2007), haragi gorria, haragi prozesatua eta animalia gantza ugari, fruta eta barazki, kaltzioa, D bitamina, soja eta antioxidatzaile gutxiago kontsumitzea dira, betakarotenoa eta beste karotenoide batzuk, C bitamina eta E bitamina alegia (Dong eta Qin, 2011)(Farvid et al., 2016).

Halaber, omega 3 eta omega 6 gantz-azidoek bularreko minbizia izateko arriskuarekin duten erlazioa aztertu da. Hasierako azterketek iradokitzen dutenez, omega-3 koipe gehiago

BULARREKO MINBIZI METASTASIKOA EMAKUMEETAN: JARDUERA FISIKOAREN ERAGINA ETA HOBEKUNTZA PROPOSAMENA

izateak murriztu egin dezake bularreko minbizia izateko arriskua, baina ikerketa gehiago behar da (Donaldson, 2004).

Alkohola eta Tabakoa

Bularreko minbiziak alkohol kontsumoarekin duen lotura aztertu zuten. 105.986 emakume izena eman zuten Nurses' Health Study-n; horietatik 7690 emakumek garatu zuten bularreko minbizi inbaditzailea 1980tik 2008ko ekainera bitartean. Alkoholaren kontsumoa bularreko minbizia izateko arrisku handiagoarekin nabarmendu zen (Chen et al., 2012).

Tabakoari dagokionez, arrisku handiago bat aurkitu zen lehen haurdunaldia baino lehenago erretzen zuten emakumeetan (%21 handiago bat) eta maiztasun eta bizio handia duten horietan (hau da, 40 pakete baino gehiago urtean) (Winters et al., 2017)

Jarduera Fisiko Eza

Azterketa epidemiologikoen erakusten dutenez, jarduera fisiko handiak murriztu egiten du bularreko minbizia izateko arriskua emakumeengan (Neilson et al., 2016). Mekanismo biologiko posibleen artean sartzen dira jarduera fisikoak gorputz-osaeran duen eragina, intsulinarekiko erresistentzia eta hormona esteroide sexualen maila zirkulatzailea (Friedenreich et al., 2010). Emakumearen Osasun Ekimenaren Kohorte Azterketan 50-79 urte bitarteko 74.171 emakumek parte hartu zuten, Estatu Batuetako 40 zentro klinikotatik errekrutatuta. 35 urterekin jarduera fisiko hedagarria egiten zuten emakumeek bularreko minbizia izateko %14 arrisku txikiagoa zuten emakume ez-aktiboekin alderatuta (McTiernan et al., 2004).

Era berean, azterketa epidemiologikoen beste berrikuspen baten arabera, bularreko minbizia izateko arriskua %25 murriztu zen fisikoki aktiboak zirenetan ez zirenekin alderatuta (Ramírez et al., 2017).

Amagandik edoskitzea

Amagandik jasotzen den edoskitzeak murriztu egiten du emakumearen bularreko minbizia, eta aldatu daitekeen prebentzio portaera garrantzitsua da. Amagandik edoskitzearen iraupen luzeena bularreko minbiziaren arrisku txikiago batekin lotzen da (Roberts et al., 2019).

Nahiz eta badira beste hainbat faktore atsedan eza, estresa edota antsietatea diren moduan, hauek ez dira besteak baino gutxiago, baina ez naiz geratu guztiak erreparatzera.

BULARREKO MINBIZI METASTASIKOA EMAKUMEETAN: JARDUERA FISIKOAREN ERAGINA ETA HOBEKUNTZA PROPOSAMENA

2.2.5-Tratamendua (IV metastasikoa):

Bularreko minbizi metastasikoaren tratamendu nagusiak ondorengoak izango dira:

- Terapia hormonalak: minbizi mota batzuk hormonen mende daude hazteko. Hori dela eta, hormonak blokeatu edo aldatzen dituzten tratamenduek, batzuetan, minbizi mota horien garapena moteltzen edo geldiarazten lagun dezakete.
- Kimioterapia: tratamendu sistemikotzat hartzen da, sendagaiak gorputz osotik pasatzen direlako eta gorputzeko ataletara jatorrizko tumoretik (primarioa) urrun hedatu diren minbizi zelulak (metastasia) desagertarazteko eragin dezaketelako.
- Terapia bideratua: minbiziaren aurkako tratamendu mota bat da, zelula arruntei eragin gabe minbizi zelulei erasotzeko diseinatutako sendagaiak erabiltzen dituena.
- Immunoterapia: gaixoaren immunitate sistemaren funtzionamendua indartzen edo aldatzen duen tratamendua, minbizi zelulak aurkitu eta haien eraso ahal izateko.
- Aurreko guztien konbinaketa bat.

Egoera zehatz batzuetan, kirurgia eta erradioterapia erabilgarri izaten dira.

- Kirurgia: minbizia prebenitu, diagnostikatu, etapa zehaztu eta tratatzeko erabiltzen da kirurgia. Minbiziarekin lotutako eragozpenak edo arazoak ere arindu ditzake.
- Erradioterapia: erradiazioak zelulen barruan dagoen ADN-ari eragiten dio haustura txikiak sortuz. Haustura horiei esker, minbizi-zelulak hazi eta zatitu egiten dira, eta heriotza eragiten diete.

Tratamenduak, sarritan, tumoreak gutxitu (edo hazkundea moteldu), sintomak hobetu eta emakumeei luzaroago bizitzen lagundu diezaike, baina minbizi metastasikoaren kasuan sendaezinak dira (ACS, 2020).

Kimioterapia, terapia-hormonalak...utzitako albo ondorioei (ikus irudi 11) aurre egiteko, ikerketa ildo garrantzitsu bat sortu da errehabilitazio onkologikoaren arloan, eta utzitako arrastoak gutxitzea edo saihestea du helburu zuzendutako JFak hain zuzen ere.

BULARREKO MINBIZI METASTASIKOA EMAKUMEETAN: JARDUERA FISIKOAREN ERAGINA ETA HOBEKUNTZA PROPOSAMENA

Taula 1

Bularreko minbizi metastasikoan tratamendu antineoplasikoekin lotutako zeinu eta sintomak

(Ramírez et al., 2017).

	Cirugía	Quimioterapia	Radioterapia	Terapia hormonal	Terapia biológica
Fatiga	✓	✓	✓	✓	✓
Dolor	✓	✓	✓	✓	
Cardiotoxicidad		✓	✓	✓	✓
Toxicidad pulmonar		✓	✓		
Neuropatía periférica	✓	✓	✓		
Cambios cognitivos	✓	✓		✓	
Infertilidad/menopausia precoz		✓		✓	
Cambios de peso corporal		✓		✓	
Alteración densidad mineral ósea		✓		✓	
Cambios músculo-esqueléticos	✓		✓	✓	
Daño función inmunológica		✓	✓		✓
Linfedema	✓		✓		
Cambios gastrointestinales		✓		✓	✓

2.3-JARDUERA FISIKOA ETA MINBIZIA

JFak geroz eta paper garrantzitsuagoa hartzen ari da minbiziaren prebentzioan biztanleriaren artean (Matthews et al., 2020). Izan ere, 1, 44 milioi helduk egindako analisiek iradoki zuten aisialdiko JFak 13 motatako minbiziren murriztapena dakartela (Moore et al., 2016).

Gainera, froga ukaezinak daude baieztatzen dutenak JF erregularren eraginkortasuna zenbait gaixotasun kronikoren prebentzio primario eta sekundarioen aurrean, hala nola, gaixotasun kardiobaskularrak, diabetesa, minbizia, hipertentsioa, obesitatea, depresioa, osteoporosia eta heriotza goiztiarra.


Badirudi modu ohikoan egiten den JFak, lanarekin edota aisialdiko jarduera gisa, lotura ezartzen duela minbizi espezifikoen eraginaren murrizketan, bereziki, koloneko eta bularrekoan (Darren et al., 2006). Halaber, JF erregularrak gaixoen bizi kalitatea eta osasun egoera bermatzen duela adierazi da (Cornish et al., 2011).

Aisialdiko JFren neurketek ezagutza handiak eman dituzte JFren hilkortasunaren arteko harreman-erantzunari buruz, eta minbiziarekin loturak erakutsi dituzte. Egin-eginean ere, aisialdiko jarduera fisikoaren kantitateak (7,5-15 MET ordu astean) minbizi-arrisku txikiago nabarmen batekin lotzen da eta JFren maila altuenak estatistikoki esanguratsuak dira, bularreko, koloneko, endometrioko, giltzurruneko, esofagoko, gibealeko, buru eta lepoko minbizi arrisku txikiagoarekin lotzen dira (Matthews et al., 2020).

BULARREKO MINBIZI METASTASIKOA EMAKUMEETAN: JARDUERA FISIKOAREN ERAGINA ETA HOBEKUNTZA PROPOSAMENA

Grafika 1

JFa aisialdian (lan metaboliko baliokidea (MET) ordu/aste) eta minbizia izateko arrisku kokapenaren arteko erlazioa (Brown et al., 2012).



Zer da JFa ? JF edozein mugimendu da non muskulu-eskeletikoaren erabilpena egiten den eta atsedeen-mailaren gaineko gastu energetikoa suposatzen duen (Capersen et al., 1985).

JFa lau azpitalde handitan sailka daiteke. Azpitalde horietan sartzen dira jarduera okupazionala (lanean egiten den jarduera), etxea (etxean egiten den jarduera), garraioa (mugitzeko egiten den jarduera) eta aisialdiko denbora (gozatzeko edo gozatzeko egindako jarduera) (Capersen et al., 1985). Era berean, JFa intentsitate desberdinetakoa izan daiteke, arina, moderatua eta gogorra (Thompson et al., 2010).

JFa ebaluatzeko lau parametro estimatu daitezke: maiztasuna, intentsitatea, denbora eta jarduera mota (Brown et al., 2012).

Praktika erregularrari esker, uler daitezke sortzen diren egokitzapen fisiologiko guztien onurak organismoan, gaixotasunak prebenitzen laguntzen dutenak, edota indarberritze hobea eta azkarragoa dakartenak, bizi- kalitatea eta bizi-itzaropena. Era berean, forma fisikoa

BULARREKO MINBIZI METASTASIKOA EMAKUMEETAN: JARDUERA FISIKOAREN ERAGINA ETA HOBEKUNTZA PROPOSAMENA

hobetzen da indarrean dauden eguneroko jarduerak gaitasunarekin eta arretaz garatzeko, hau da, nekerik gabe eta adinako energiarekin gozatzeko (Merinoa eta Cabello, 2020).

Onurak ariketa fisikoa neurritz eginez lortzen dira 30 minutu eta gutxienez 5 egun astean. Jarduera horien artean daude ibiltzea, korrika egitea, bizikletan ibiltzea, igeri egitea, pilates edo yoga egitea; hala ere, badaude dagoeneko intentsitate handiko ariketak jarduera moderatu baten onura berberak edo handiagoak sustatzen dituztenak (Merinoa eta Cabello, 2020).

Hasiera batean, minbizia duten pertsonaren egoera fisikoa, ariketa aerobiko ertainarekin nahikoa dute, baina hobekuntzak eta egokitzapenak eskuratzeko, beste maila bat behar da lanean, intentsitatea areagotzea, edota bitarteko lana barneratzea (HIIT) (Merinoa eta Cabello, 2020).

Berriki egindako ikerketen arabera, intentsitate handiko entrenamendua, modu interbalokoa aplikatuta, ariketa moderatu jarraituaren metodologia tradizionala baino eraginkorragoa da gaitasun funtzionala eta arriskua iragartzeko beste aldagai batzuk hobetzerako orduan (Cornish et al., 2011).

Zentro Amerikarreko Kardiologia (Eijsvogels et al., 2016) aldizkariaren artikulu baten arabera, 504 azterketako meta analisi batek iradokitzen du ariketa aerobikoak eta erresistentzia ariketak konbinatzeak gorputzeko gantza gehiago murriztu eta muskulu-indarra hobetzea dakarrela, ariketa aerobikoarekin soilik alderatuta (Merinoa eta Cabello, 2020).

Astean bat edota bi egun lan aerobikoa modu ez jarraian lantzearekin nahikoa da. Lanaren diseinuko funtsezko puntuetako bat ratioa da, zer erlazio dagoen lanaren eta errekupeazio erlatiboaren artean (lanaldien arteko indarberritzea). Horretan hastean lan-mota: 1:4 izatea gomendatzen da. Adibidez: 15 segundo lanean eta 60 segundoko indarberritzea HIIT (HIIT zentzu ez zorrotzean lantzea baimentzen du), edo minutu bateko lana eta 4 minutuko indarberritzea HIIT batean. Gero, lanaren eta atsedenen arteko erlazio hori aldatuz joango da, lehenengoa handituz eta bigarrena txikituz, edo besterik gabe bigarrena murriztuz (Merinoa eta Cabello, 2020).

BULARREKO MINBIZI METASTASIKOA EMAKUMEETAN: JARDUERA FISIKOAREN ERAGINA ETA HOBEKUNTZA PROPOSAMENA

Indarrari dagokionez, lan maiztasuna astean 2 egun ez-jarraian egitea errekupeazio on bat bermatu ahal izateko egokia da. Karga handiak ez direnez mugiarazten, nahiko da 48 orduko berreskuratzearekin. 8-12 ariketez osaturiko zirkuitua eraman daiteke aurrera ezen muskulu talde nagusien indarra garatzen den, 10-15 errepikapen eginez ariketa bakoitzean. Modu honetan, sistema kardiobaskularrari bihotz-maiztasuna altu mantentzea eskatzen zaio gastu-kaloriko handia lortzeko (Merinoa eta Cabello, 2020).

Gehien erabiltzen diren ariketak egiturazkoak izanen dira edo globalak, askotariko artikulazioak inplikatzeko dituztenak. Horrela, gihar talde desberdinen ekintza koordinatua lortzen da. Gainera, indar-irabazia maximizatzen dute eta koordinazio eta gastu kaloriko handiagoa behar dute ariketa mono articularra edo espezifikoa baino. Mugimendua-hein handi batean egingo da, esan, muskulu luzaketa osoaren posiziotik, muskulu-uzkurdura osoaren posizioraino (Merinoa eta Cabello, 2020).

Ariketak hautatzeak lan orekatua izan behar du, hau da, gihar-taldeen arteko konpentsazioa bilatzen da. Ez dira eremu bereko bi ariketa jarraian lantzen. Modu desberdinak erabiltzen dira honakoa saihesteko: goiko eta beheko gorputz adarreko giharrak banatzea, goiko eta beheko gorputz enborra ariketak tartekatzea eta horri flexiogileak eta estentsiogileak uztartzen saiatzea (Merinoa eta Cabello, 2020).

Bestalde, autore batzuen arabera, iraupen oso labur eta ertaineko esfortzuetako bihotz-maiztasunak ez du islatzen organismoarentzat egiten duen esfortzu erreala; izan ere, atzerapen bat gertatzen da bihotz-esfortzu kardiobaskular bizien aurrean bihotz-erantzunaren gehikuntzan, bai eta bihotz-maiztasunak atsedentartean ondoren indarberritze-tarteetan mantentzen duen inertzian ere (Peña et al., 2013). Hala, biak erabiltzearen alde agertzen dira: alde batetik, pultsometroa erabiltzea kontrolatua izateko pultsazioek ez dutela gainditzen ezarritako intentsitate-maximoa; bestetik, Borg eskala. Horien bidez, esfortzu fisikoa egiten duen subjektuak zeharka ezartzen du hautemandako esfortzua, eta eskalako zenbaki bat aukeratzen du (Merinoa eta Cabello, 2020).

Era berean, ariketaren estimulua aldatu egiten da aldi bakoitzean, eta tarteko izaeraren aldagaiak barneratu (kargak, errepikapenak, serieak, bolumena, atsedentaldiak) eta ariketak berak aldatu. Aukera hori egiteko, kontuan hartuko da ariketak sinpleak izatetik konplexuak

BULARREKO MINBIZI METASTASIKOA EMAKUMEETAN: JARDUERA FISIKOAREN ERAGINA ETA HOBEKUNTZA PROPOSAMENA

izatera pasatuko direla. Beharrezkoa da gorputza indar-entrenamenduaren estres fisikora pixkanaka egokitzea, muskulu-agujeta txikienarekin (Merinoa eta Cabello, 2020).


Mankuernak, erresistentzia banda elastikoak edo TheraBand eta makinak erabili behar dira. Makinak gomendagarriak dira lan honetan sartzea, mugimendua guztiz gidatua eta egonkorragoa baita gorputz-jarreran, beheko eta goiko enborra euskarriak baitituzte, eta, horri esker, errazago entrenatzen baitira muskulu-talde jakin batzuk. Hastapeneko arrisku nagusia lesioak dira. Ariketa ikuspegi teknikitik zuzen egina izatea lortu behar da (Merinoa eta Cabello, 2020).

Ondorioztatuz, alderdi fisiologikoari erreparatuz, kalitate handiko 17 azterlaneko metadatuaren analisian, gaitasun aerobikoa bihotz-funtzioaren markagailu gisa, nabarmen hobetu zen bizirik dirauen minbizidunetan ariketak iraun zuen bitartean. Era berean, hiru azterlanen antzeko meta-analisi batean, VO₂-a nabarmen handitu zen 1,21 mL-kg⁻¹-min-ko magnitudean (Brown et al., 2012). Kirol Medikuntzako Elkargo Amerikarrak minbiziari eta ariketari buruz egindako adostasun-adierazpenaren arabera, A mailako ebidentzia-maila bat zegoen minbiziaren tratamenduan ariketak dituen bihotz eta arnasketa onurei buruz (Schmitz et al., 2010). Nekea eta muskuluen ahultasuna ere minbiziaren tratamenduaren ondorio komunak dira, baina entrenatu egin daitezke. Esate baterako, prostatako minbizitik bizirik atera eta erradioterapia jasan zuten 121 pertsonen artean, bularreko eta hanketako indarra (zortzi errepikapen maximoko proba baten bidez neurtua) 13,7 eta 25,2 kg hobetu zen, hurrenez hurren, 24 asteko entrenamenduan, ariketak eginez (Segal et al., 2009). Era berean, kimioterapia lagungarriaren eraginpean dauden bularreko minbizitik bizirik atera ziren 242 lagunen artean, bularraren eta hanken indarra (errepikapeneko proba maximo baten bidez neurtua) 6,8 eta 5,2 kg hobetu zen, hurrenez hurren, 17 asteko entrenamenduaren ondoren, ariketak eginez (Courneya et al., 2007). Schwartz-ek jakinarazi zuen intentsitate ertaineko ariketa aerobikoak, batez ere oinez ibiltzeak, bizkarrezurrean hezur-galera prebenitzen duela kimioterapian, emakume-sexuko minbizia duten gaixoetan (Brown et al., 2012).

BULARREKO MINBIZI METASTASIKOA EMAKUMEETAN: JARDUERA FISIKOAREN ERAGINA ETA HOBEKUNTZA PROPOSAMENA

Grafika 2


Efektu fisiologikoak jardueraren ondorio gisa minbiziaren tratamendu bitartean (Brown et al., 2012).



Ariketak ere, aspektu psikosozialean onurak dakartza, adibide da osasun mentalaren emaitzen aniztasuna hobetzen duela, nekea, antsietatea, bizi-kalitatea eta animo egoera (Schmitz et al., 2010)(Speck et al., 2010). Ebidentzia horren zati handi bat bularreko minbiziaren artean dago zati txikiago bat prostatak, koloneko eta hematologiako minbizietan (Brown et al., 2012).

Grafika 3

Efektu psikosozialak jardueraren ondorio gisa minbiziaren tratamendu bitartean (Brown et al., 2012).



BULARREKO MINBIZI METASTASIKOA EMAKUMEETAN: JARDUERA FISIKOAREN ERAGINA ETA HOBEEKUNTZA PROPOSAMENA

2.4-JARDUERA FISIKOA ETA BULARREKO MINBIZI (METASTASIKOA)

Bularreko minbizia eta JFa erlazionatzen dituzten ikerketa asko egin dira, eta gaixotasun arriskua %40 inguru murriztu dela ikusi da (Brown, J. et al, 2012). Hala eta guztiz ere, metastasia gaixotasun sendaezina jarraitzen du izatean (Scully eta Boon-Huat Bay, 2021).

Lehenik eta behin, egileek adierazten dute JFa bularreko minbiziaren paziente eta bizi dirauenetan segurua dela, eta ez dituela handitzen sintoma negatiboak, ezta linfedema arriskua ere (Stout, N. et al, 2017).

Minbizi mota honetan JFak onura batzuk dakartza funtzio fisikoari dagokionez: erresistentzia hobetzea, malgutasuna, gantz gabeko ehuna, bihotz eta arnas gaitasuna eta oxigeno kontsumo maximoa. Era berean, hainbat hobekuntza ere lortzen dira bizi-kalitatean, intsulina murriztapenean, neke gutxiagotzean, sistema immunologikoan, sintoma gastrointestinalen murriztapenean eta kimioterapia dosiarekiko tolerantzia handiago batean (Stout, N. et al, 2017).

Bestalde, funtzio sozialeko zein psikologikoko onurak tratamendu bitartean eta ostean kontuan hartu behar dira. Izan ere, JFak ahalduntze sentimenduak bermatzen ditu, lorpen pertsonal gisa bezala deskribatzen direnak, hau da, modu bat da erronka bati aurre egiteko eta modu berean, esfortzua bultzatzeko. Indar eta gaitasun aerobikoko irabaziek konfiantza eman zuten diagnostikoaren aurretik egindako jarduera fisikoan berriro parte hartzeko. Aldiz, diagnostikoa egin aurretik jarduera fisikoan esperientziarik ez zutenentzat, "ateltiko" gisa izendatzen lagundu zuen programak; beraz, konfiantza lortu zuten ariketa eguneroko errutina bezala txertatzeko eta helburu berriak ezartzeko eurentzat (Browall, M. et al, 2018).

Hala, taldeko jarduera batean parte hartzeak, gaixotasuna ahaztea eragin zuen eta aldi berean, egoera berean dauden beste pertsona batzuekin minbiziaz zintzo eta argi hitz egiteko aukera ikusi zuten. Gainera, jarrera mental hobea, estres gutxitzea, kontrol-zentzu handiagoa, depresioa eta antsietate murriztea eta konfiantza handiagoa sentitu zuten, adibidez, ilea galtzarekin eta kimioterapiak eragindako larruazalaren arazoekin erakargarritasunik ez izatearen sentsazioan, muskulu-masa irabaziz eta gorputzeko guztizko gantza murriztuz konpentsatua izan zen (Browall, M. et al, 2018).

Ahalik eta onura gehien eskuratzeko JF mailari dagokionez, emaitza esanguratsuenak aisialdiko jardueretan, etxeoetan eta lanekoetan aurkitu ziren, ondorengo murriztapen kopuruekin %21, %21 eta %18 hain zuzen ere. Ariketaren intentsitateak emaitza hobek ematen ditu intentsitate ertainetik altua bitartean, eta azkenik, zenbat eta handiagoa izan

BULARREKO MINBIZI METASTASIKOA EMAKUMEETAN: JARDUERA FISIKOAREN ERAGINA ETA HOBEKUNTZA PROPOSAMENA

jardueraren bolumena, orduan eta handiagoak dira onurak eta arrisku-murrizketak, baina ez dira proportzionalki handitzen (Brown, J. et al, 2012).

Orain arte egindako ikerketa gehienak animalia-eredukoak izan dira eta etorkizun oparoa dutela erakutsi dute JFari begira batez ere ariketa aerobikoan, bai prebentzioan eta bai tratamenduan egiterako orduan (Brown et al., 2012).

JF garapen metastasikoaren faseak, pausuak kontuan hartuta:

Atal honetan prozesu metastasikoaren 5 faseak bereiziko dira, eta JFak prozesu horretan eragin ditzakeen aldaketekin erlazionatuko dira (Ten Ryen, eta Van Doorslaer, 2020).

1. Trantsizio epitelial-mesenkina: zelulari atxikitzeke galera da, baita migrazio-propietateak eta propietate inbaditzaileak eskuratzea ere. Fase honetan, saguekin egindako azterketen emaitzen arabera, zelulaz kanpoko matrize-trantsizioa, tumore-ugalketa eta ehun-inbasioa moteldu egiten dira arratoietan neurrizko igeriketa egiten denean; igeriketa luze behartuan berriz, kontrakoa gertatzen da (Ten Ryen, S. et al.-en Van Doorslaer, 2020).
2. Intrabasazioa: urrats metastasikoa da, non tumore-zelulak zirkulazio sistematikora sartzen diren odol-hodien edota linfa-hodien bidez eta modu horretan urruneko ehun bat inbaditzea lortzen dute. Metastasiaren fase honetako JFko kronikoak angiogenesisia estimulatu du, hodietako endotelio-hazkuntzaren faktorearen (VEGF) adierazpena handitzen baitu. Bularreko minbizia duten arratoi eme inokulatuetan, zinta batean 35 astez korrika egiteak VEGFren adierazpen handiagoa eta tumore-baskularizazio handiagoa eragin zuen, tumore-hazkunde handiagoa ekarriz arratoietan (Ten Ryen eta Van Doorslaer, 2020).

Hala ere, tumoreak ez ziren kontrol sedentarioetan bezain oldarkorrak izan, eta inokulazioaren eta tumorearen garapenaren arteko sortasun-denbora luzeagoa izan zen ariketa fisikoa egiten zuten arratoietan (Ten Ryen eta Van Doorslaer, 2020).

3. Biziraupena zirkulazioan: zirkulatzen duten tumore-zelulek zenbait ezaugarri jasotzen dituzte moteltasun eta biziraupenenak odol-korronteak sortutako zizailatze mekaniko eta hemodinamikaaren estresaren aurka, ikus immunitate-sistemaren kontra. Ikerketek erakutsi dutenez, entrenamendu fisikoak toxikotasuna eta NK mailak, baina egokitzen horiek ez dira agertzen tumore injekzioaren ondoren, eta, beraz, badirudi

BULARREKO MINBIZI METASTASIKOA EMAKUMEETAN: JARDUERA FISIKOAREN ERAGINA ETA HOBEKUNTZA PROPOSAMENA

NK jarduerak tumore barreiaduran duen eragina eraginkorra dela, baldin eta ariketa sakabanatze metastasikoaren aurretik hasten bada arratoietan (Ten Ryen eta Van Doorslaer, 2020).

Minbiziren bat duten gizon sedentarioetan egindako azterketen arabera, intentsitate handiko txirrindularitza (% 80-100 VO₂max. plaketa-tumoreen agregazioa eta ehun-faktoreek eragindako koagulazioa handitu egin zuten, jakina baita metastasia eragiten duela, baina efektu horiek mugatuak izan ziren berotze bat egiterakoan ariketa egiten hasi aurretik. Intentsitate ertaineko ariketa (% 60ko VO₂max.) plaketen eta tumoreen agregazioa inhibitu zuen, eta, beraz, sakabanatze metastasikoa (Ten Ryen eta Van Doorslaer, 2020).

4. Estrabasazioa: bizirik irauten duten zelulak endotelioko mintzean zehar igarotzen dira zirkulaziotik ihes egiteko, eta ondoren, urruneko ehun bat inbaditzeko. Berrikuspen honen azterketa batean, 5 aste ondoren borondatezko gurpilean, saguak tumore-zelula metastasikoekin injektatuak izan ziren. Tumorearen injekzioaren ondorengo 48 orduetan ariketa egiten zuten saguetan kladin-5 adierazpenean handiagotze bat aurkitu zen, era berean, okludina eta zonula okludina. Eta injekzioa eta hiru astetara, okludina eta kladina adierazpena handitzen jarraitzen zuen jardunean zeuden saguetan, eta hori positiboa da metastasiaren aurre babesle bezala. (Ten Ryen eta Van Doorslaer, 2020).

5. Ereintza eta kolonizazioa: tumore-zelula barreiatzen den urruneko ehunean ereiten da, eta ondoren ugaritzeko mikro giro egokia behar duen kolonizazioa bat gertatzen da (Ten Ryen, S eta Van Doorslaer, 2020).

Fase honetan, hezur-muinetik eratorritako zelula dendritikoak aztertzeko interesgarriak dirudite; izan ere, angiogenesisia eta tumore primarioa erregulatzen dute, eta metastasiaren aurreko nitxoak eratzea eta tumore-zelulak kolonizatzea sustatzen dute. Frogatu zenez, 12 astez txirrindularitza moderatutik intentsiborako entrenamenduak handitu egiten du hezur-muin zirkulatzailatik eratorritako zelula dendritikoen kantitatea bularreko adenokartzinoma duten bularreko emakumeetan. Horrek adierazten du ariketak tumore inbaditzaileko fenotipo bat eskuratzea erraztu lezakeela, edo ereintza eta / edo kolonizazioa areagotu (Ten Ryen, S.eta Van Doorslaer, 2020).

3-DONOSTIA ONKOLOGIKOA

3.1-Donostia Onkologikoa parte hartzen ari den proiektuak zertan datzan:

Graduari amaiera emateko, Donostiako onkologikoan burututako praktikei esker, JFa beste ikuspegi batetik aztertzeke eta lantzeke aukera izan dut, hain zuzen ere, bularreko minbizi metastasikoa pairatzen duten emakume gaixoen bizimodutik. Erronka gogobetegarria eta polita izan da, eta ondorengo lerroetan parte hartzen ari diren proiektua zertan datzan azalduko dut. Era berean, ikusitakoa kontuan hartuta, proiektuari nire hobekuntza proposamena egin diot.

Donostia onkologikoa, ikerketa batean parte hartzen ari da, zeina mundu mailan (Europa eta Australia) gauzatzen ari den. Ikerketa honetan, bularreko minbizi metastasikoa duten pertsonetan JFak duen eragina aztertzen ari dira. Horretarako, paziente batzuk interbentzioan daude eta beste batzuk berriz, kontrolean. Modu honetan, lortutako emaitzen aldea aldera daiteke. Ikerketaren iraupena 9 hilabetetakoa da. Interbentzioan daudenek, 6 hilabete egiten dituzte onkologikoan astean ordubeteko bi saio burutuz, eta gainerako beste hiru hilabeteetan, bi astetatik behin etortzen dira interbentziora. Kontrolean daudenen kasuan, egin beharreko JFren inguruko aholkuak jasotzen dituzte. Aipatu behar da, interbentzioan zein kontrolean dauden emakumeen jarduera guztiak monitorizatuta daudela ikerketa hasieran banatutako eskumuturreko erloju batengatik. Erloju hau aplikazio batekin atxikita dago non eguneko jardueraren erregistroa gordeta gelditzen den.

Programarekin hasi baino lehen onespren berriemailea betetzen da. Ondoren, jarduleek balorazio bat pasatzen dute programan barneratu aurretik. Balorazio hau 3 hilero errepikatzen da. Bertan odol analisia, bioinpedantzia, gerri aldaka indizea, egoera fisikoa, indarra eta gaitasun funtzionala neurtzen dira.

Egoera fisikoan bi bizikleta froga egiten dira. Bata iraupen laburreko ariketan gaitasun maximoa neurtzeko, eta bestea aldiz, gaitasun aerobikoa. Lehenengoa, 70 rpm-tan egiten da karga progresiboki igoz, eta bigarrenengan aldiz, 70 rpm-tan baina karga moderatu finkoa izaten da. Bi frogak amaituko dira pazienteak 60 rpm-tik behera jaistean. Indarrari dagokionez, eskuen dinamometroa eta hanken prentsa erabiltzen da. Amaitzeko, gaitasun funtzionalean zenbait jarduera desberdin gauzatzen dira: aulkitik eseri eta altxa 5 aldiz jarrian ahalik eta azkarren, eskailoi bat igo eta jaitsi eta orekako 3 jarduera: ibilera monopodala, koltxonetan oreka mantentzea eta koltxonetan oreka mantentzea baina begiak estalita.

BULARREKO MINBIZI METASTASIKOA EMAKUMEETAN: JARDUERA FISIKOAREN ERAGINA ETA HOBEKUNTZA PROPOSAMENA

Lortutako emaitzak, sistema batean gorde egiten dira. Bertan formula baten bidez kalkuluak burutzen dira eta jardulea, bizikletan zein intentsitatean aritu behar den ateratzen da. Era berean, indar ariketekin, errepikapen maximoen hipotetikoak (h1RM) lortzen dira.

Onkologikoan pazienteekin egiten den lana atal hauetan oinarritzen da: beroketa, indarra, lan aerobikoa, oreka eta luzaketak. Ikusi ondorengo taula.

Taula 2

Minbizi metastasikoa duten emakumeek egiten duten lana

BEROKETA	INDARRA	LAN AEROBIKOA	OREKA	LUZAKETAK
3' +-	35'	15'	5'	5'

BEROKETA:

Beroketak hiru bat minutu irauten ditu. Egunean, momentuan bertan prestatzen da, antolamendu jakin bat jarraitu gabe.

INDAR ERRESISTENTZIA:

Indar erresistentzian h1RM zehaztapena estimatzeko, aldez aurretik aipatu bezala balorazioan lortutako emaitzak formula batean sartu eta kalkulatu da. h1RM egiteko, 12 errepikapen egin behar dituztela 3 serieetan ezartzen zaie.

